


BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK

Kanalak ezinbestekoak dira gure produktua merkatu-segmentura iristeko;

Alde batetik, gure komunikazio-kanalak influentzerrak izango dira, beraien sare sozialetan gure produktua iragartzeko, beraien jarraitzaileek ikusteko eta beraiengan eragina izan dezan. Gainera, argazki eta bideoen bidez iragarkiak ere izango ditugu, mugikorreko sare sozialetan azaldutako iragarkiak, pertsonengan atentzia piztu dezan.

Beste aldetik, salmenta kanala ez da zuzeneko izango, hau da, gure produktua ezingo da denda fisikoetan erosi, gure produktua gure webgunean bakarrik erosteko aukera izango dute, hori dela eta, produktua bezerora iristeko bitartekoak beharko dira, gure kasuan ibilgailuak; bezeroaren kokapenaren arabera ibilgailu desberdinak erabiliko dira.



Aldez aurretik aipatu dudan bezala, ez dugu denda fisiko bat izango, gure produktua bakarra delako, online denda izatea egokiena dela uste dugu, baita mundu osoko pertsonak produktu hau erosteko aukera izateko ere. Bezeroekin harremanetan jartzeko, webgunea ezinbestekoa izango da. Hau da, gure webgunean erosi beharko dute produktua; produktua aukeratu erosi eta produktua non jaso nahiko duten azalduz. Produktua eskaera egindako egunetik 18 egunera iritsi beharko litzaieke gehienez. Bestalde, 2 urteko berme izango du produktua jasotako egunetik, hori dela eta, ezinbesteko izango da erosketaren tiketa gordetzea, denbora tarte hori baino lehenago haustuz gero, ilehorgailua erreklamatzeko beharrezkoa baita. Gainera, gurekin harremanetan jarri nahi izanez gero, galderak egiteko, arazoak erantzuteko... webgunean dagoen gmailari idaztearekin nahikoa izango da.